2024 - 6
24/01/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
T0144708b00b1813b9207e90b50010e3bP



## KUADRILLAKO BATZARRAK 2024KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

Santikurutze Kanpezun, 2024ko azaroaren 28an, Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egoitzan, Kuadrillako Batzarra bildu da, ohiko bilkuran eta lehenengo deialdian, Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jauna buru dela, eta honako batzarkideak elkartu dira:

Betolaza Pinedo, Juan José
Elorza Lorenzo, Lucía
Fernandez de Monje Alzola, Ana Asunción
Gaintzarain González de Durana, Urtzi
Moraza Pérez, Enrique Javier.
Nuñez Murillo, Rafael
Quintana Urrea, Miryam
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai
Waliño Arana, Larraitz

Era berean, Arabako Mendialdeko Kuadrillako ekonomia sustapeneko teknikaria Ana Mª Beltrán de Heredia andrea bertaratu da aldi baterako gerente-letradu lanetan.

Halaber, gerente-letradu ohia, Álvaro Castillo Cordero, bertaratu da ere entzule gisa, sor zitezkeen zalantzak argitze aldera.

Presidenteak bilkura hasi du, 18:35an, eta jendaurrekotzat jo du, hasteko beharrezkoa den bertaratze-quoruma egiaztatu ondoren, TAOLeko 46.2 c artikuluaren, AJAko 90. artikuluaren eta Kuadrillei buruzko 63/1989 Foru Arauaren 25. artikuluaren arabera, gai-zerrendan jasotako honako gai hauek aztertu dira:

### 1.- BATZARKIDE BERRIAREN KARGU HARTZEA

Presidenteak jakinarazi du Kuadrilla honen esku daudela Arraia-Maeztuko Udalaren osoko bilkurako ziurtagiriak, eta horien bidez baliogabetu egin dela Kuadrillako Batzarrerako

## ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE JUNTA DE CUADRILLA CELEBRADA EL DIA 28 DE NOVIEMBRE DE 2024.

En Santa Cruz de Campezo a 28 de noviembre 2024, en la sede de la Cuadrilla de Montaña Alavesa, se reúne la Junta de Cuadrilla, en sesión ordinaria y en primera convocatoria, bajo la presidencia del Sr. D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz, y concurren los junteros y las junteras siguientes:

Betolaza Pinedo, Juan José
Elorza Lorenzo, Lucía
Fernandez de Monje Alzola, Ana Asunción
Gaintzarain González de Durana, Urtzi
Moraza Pérez, Enrique Javier.
Nuñez Murillo, Rafael
Quintana Urrea, Miryam
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai
Waliño Arana, Larraitz

Así mismo, asiste a la Sesión Dª. Ana María Beltrán de Heredia, técnica de promoción económica en funciones de gerente-letrado accidental de la Cuadrilla de Montaña Alavesa.

Asiste, también, en calidad de oyente y para resolver cuantas dudas pudiesen surgir el gerente-letrado saliente, Álvaro Castillo Cordero.

Abierta la Sesión y declarada pública por la presidencia a las 18:35 horas, previa comprobación del quórum de asistencia preciso para que pueda ser iniciada, de acuerdo con los artículos 46.2 c de la LBRL, 90 del ROF y 25 de la Norma Foral 63/1989 de Cuadrillas, se procede a conocer de los asuntos siguientes incluidos en el Orden del día:

### 1.- TOMA DE POSESIÓN DE NUEVA JUNTERA

El presidente da cuenta de que obran en poder de esta Cuadrilla certificados plenarios del Ayuntamiento de Arraia-Maeztu en virtud de los cuales se revoca el anterior

2024 - 6 24/01/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
T0144708b00b1813b9207e90b50010e3bP



ordezkariaren aurreko izendapena, batzarkide berriaren mesedetan: Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola. Hori guztia Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 16.2 artikuluaren babesean.

nombramiento de representante en la Junta de Cuadrilla, en favor de la nueva juntera Dª. Ana Asunción Fernandez de Monje Alzola. Todo ello al amparo del artículo 16.2 de la Norma Foral 63/1989, de 20 de noviembre, de Cuadrillas.

Gainerako batzarkideek izendapenaren berri izan dute, eta batzarkide berriak kargua hartu du. Horren berri emango zaie Arabako Batzar Nagusiei.

El resto de Junteros y junteras se dan por enterados del nombramiento y la nueva Juntera toma posesión de su cargo. Se notificará al respecto a las Juntas Generales de Álava.

**2.- URRIAREN 23AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

**2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE DEL ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA EL 23 DE OCTUBRE**

Presidenteak galdetu du ea batzarkideren batek oharren bat egin nahi duen 2024ko urriaren 23an egindako ezohiko bilkuraren aktari buruz, zeina bilkurarako deialdiarekin batera bidali baitzen.

Oharrik egin ez denez, Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako hamar batzarkideen aldeko botoarekin, aho batez erabaki du 2024ko urriaren 23an egindako ezohiko bilkuraren akta ONARTZEA.

El presidente pregunta si algún juntero o juntera quiere formular alguna observación al acta de la sesión ordinaria celebrada el 23 de octubre que se remitió junto con la convocatoria de sesión.

No habiendo ninguna observación, la Junta de Cuadrilla, por unanimidad, con el voto a favor de los/as diez junteros/as asistentes, acuerda APROBAR el al acta de la sesión extraordinaria celebrada el 23 de octubre de 2024.

**3.- A25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**3.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA PROPUESTA DE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 25N.**

Presidenteak Miryam Quinta Urrea andreari eman dio hitza, ondorengo adierazpen-instituzionalaren proposamena irakurtzeari ekin diona:

*“2003tik aurrera, emakumeonganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 115 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Bereziki memorian gorde nahi ditugu, 2022an zehar erail dituzten Sara Pina Ieregi, Felisa S. P. eta Maria Luisa Larrañaga.*

El presidente da la palabra a la juntera Dª. Miryam Quintana Urrea, que procede a dar lectura a la siguiente propuesta de declaración institucional:

*“Desde 2003, cuando comenzaron a recogerse datos sobre violencia hacia las mujeres, 115 mujeres y 11 niños han sido asesinados en Euskal Herria. Detrás de este número inaceptable hay nombres y existencias. Proyectos de vida extraídos. Queremos que se conserven especialmente en la memoria, Sara Pina Ieregi, Felisa S. P. y María Luisa Larrañaga,*

2024 - 6
24/01/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
T0144708b00b1813b9207e90b50010e3bP



*Urte honetan ere bereziki aipatu nahiko genuke, jai giroan emandako erasoen gorakada eta bereziki sustantzia kimikorik gabeko ziztaden bidez egindakoak. Antolatutako emakumeonganako gorroto baten erakusle dira beldurra eta kontrola bilatzen duten eraso hauek. Hala ere, eraso bakoitzaren aurrean, hauek salatu dituen Mugimendu Feminista saretu bat atera da kalera. Isiltasunak normalizazioa dakarrelako, onarpena. Eta aspaldi esan genuen ez gaudela egoera hau gehiago onartzeko prest.*

*Urte luze hauetako lana izan da Indarkeriari maskara kentzea. Ez da lau zororen kontua. Sistema patriarkal sendo baten ondorioa baizik. Indarkeria matxistei buruz egindako makro-inkestak datu larria mahai-gaineratu zuen: bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar.*

*Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eragiten duen Berdintasun Legearen erreforma egin da pasa den ikasturtean, indarkeria matxistaren kontzeptualizazioa irekiago bat ekarri duena. Espainiar estatuan ere, Askatasun sexualen legea onartu da EH Bilduren babesari esker, besteak beste. Urte luzeetan mugimendu feministak mahai gaineratutako hausnarketak eta eskaerak kokatu dira lege testu hauetan, hala nola abusuaren eta erasoaren arteko banaketarekin amaitzea; indarkeria matxista bikote eremutik at eta hainbat alorretan ematen dela ikustaraztea; indarkeria digitalak, instituzionalak eta obstetrikoak izendatzea; sexu erasoak atenditzeko krisi zentroak eraikitzea; eta abar luze bat. Orain, hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da. Garrantzitsua da marko bat ezarriko duten legeak berriztea edo sortzea, are gehiago mugimendu feministak eskatutako norabidean egiten denean, baina hauek ez dute ezertarako balio, garapenerako aurrekontu eta baliabide teknikoak ezartzen ez badira.*

*Azaroak 25 hau beraz, indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna izango da, jendartean normalizatuen dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukitzeak;*

*asesinadas durante este año 2022.*

*En este año también queremos hacer una mención especial al aumento de los ataques en ambiente festivo y, especialmente, a través de los pinchazos sin sustancia química. Estas agresiones que buscan el miedo y el control son muestra de un odio hacia las mujeres organizadas. Sin embargo, ante cada agresión, ha salido a la calle un Movimiento Feminista que las ha denunciado. Porque el silencio implica normalización, aceptación. Y hace tiempo dijimos que no estamos dispuestas a aceptar más esta situación.*

*Retirar la careta a la violencia ha sido el trabajo de estos largos años. No es un asunto de cuatro locos. Es la consecuencia de un sistema patriarcal sólido. La macro encuesta realizada sobre violencias machistas puso sobre la mesa un dato grave y alarmante: una de cada dos mujeres ha sufrido violencia machista a lo largo de su vida.*

*El curso pasado se llevo a cabo la reforma de la Ley de Igualdad que afecta a Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, y que ha supuesto una conceptualización más amplia de la violencia machista. En el Estado español también se ha aprobado la Ley de Libertades Sexuales gracias al apoyo de EH Bildu. A lo largo de los años se han enmarcado en estos textos legales las reflexiones y demandas planteadas por el movimiento feminista como; acabar con la diferenciación entre abuso y agresión; visibilizar que la violencia machista se ejerce fuera del ámbito de la pareja y en diferentes ámbitos; nombrar las violencias digitales, institucionales y obstétricas; construir centros de crisis para atender las agresiones sexuales; y un largo etcétera. Ahora es tiempo de pasar de las palabras a los hechos. Es importante renovar y crear leyes que establezcan un marco, máxime cuando se hace en la dirección exigida por el movimiento feminista, pero éstas no sirven de nada si no se establecen presupuestos y recursos técnicos para su correcto desarrollo.*

*Este 25 de noviembre será, por tanto, un día para seguir identificando los diferentes aspectos*

2024 - 6
24/01/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
T0144708b00b1813b9207e90b50010e3bP



*ahozko lizunkeriak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirateke, eta, esparrurik bortitzenean, erailketak.*

*Urte honetan gainera, atzerakada ekonomikoaren mamua haizatzen ari den honetan, inoiz baina ozenago aldarrikatu behar ditugu politika eta zerbitzu publikoak. Berdintasunaren norabidean kokatu edo indarkeria matxistari aurre egiteko baliabideak ere oinarrizko beharrizan bezala identifikatzen ditugu. Dauden baliabide eta proposamen egokiak babestu edo berriak sortzeko momentu aproposa da hau ere. Jendarte hau osatzen dugun guztiok konpromiso hori hartu behar dugu. Eta batez ere erakunde publikoetan gaudenok.*

*Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea, eguneroko zereginetan hasiz, gure inguru hurbilenean jardunez. Eta gure kasuan, erakunde-eremutik jardunez, horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta politikoak aktibatuz, berdintasun-unitateak sustatuz eta haiei laguntza eskainiz, berdintasun-teknikarien egonkortasuna edo kontratazioa bultzatuz, edota emakumeen parte-hartzerako guneak sustatuz (emakumeen etxeak eta txokoak, ahalduntze-eskolak, jai parekideak eta abar). Gure herri eta hirietan bermatuta ez dauden heinean, exijitzen jarraituko dugu.*

*Guzti honengatik, indarkeria matxista gertakarietan funtzionamendu protokoloek erabiltzen dituzten mekanismo guztiak egokiak izatea da giltza; beti ere, indarkeria mota hau pairatzen duten emakumeen ahalduntzea helburu duten ikuspuntu batetik. Horretarako, instituzio publikoez gain, gai honetan adituak diren pertsonen eta mugimendu feministen parte hartzea beharrezkoa da ezarritako*

*de la violencia machista, empezando por los más sutiles y socialmente normalizados; como son los tocamientos, las obscenidades verbales, los mensajes y expresiones sexistas, el control de la vestimenta, el uso de redes sociales o el compañerismo, las dificultades para ocupar libremente el espacio público (patios escolares, patios de recreo, parques), o las decisiones administrativas que atenten directamente contra la igualdad entre mujeres y hombres. En un segundo estadio, estarían las agresiones sexuales y físicas y, en el ámbito más violento, los asesinatos.*

*Este año, en el que vivimos con el fantasma del retroceso económico, tenemos que reivindicar más alto la política y los servicios públicos. También identificamos como necesidades básicas los recursos para situarse en la dirección de la igualdad o para combatir la violencia machista. Este es también el momento idóneo para apoyar o crear nuevos recursos y propuestas. Todas las personas que formamos esta sociedad tenemos que asumir ese compromiso. Sobre todo, las personas que estamos en las instituciones públicas.*

*Nos corresponde a cada persona cambiar esta situación, empezando por las tareas cotidianas, actuando en nuestro entorno más cercano. En nuestro caso, actuando desde el ámbito institucional, activando los recursos técnicos, económicos y políticos necesarios para ello, promoviendo y apoyando las unidades de igualdad, favoreciendo la estabilidad o contratación de las técnicas de igualdad, o promoviendo espacios de participación para las mujeres (hogares y txokos de mujeres, escuelas de empoderamiento, fiestas paritarias, etc.). Si todo lo anterior no está garantizado en nuestros pueblos y ciudades, seguiremos exigiéndolo.*

*Por todo ello, es clave que todos los mecanismos recogidos en los protocolos de funcionamiento y actuación en los episodios de violencia machista sean adecuados, siempre desde un punto de vista de empoderamiento de las mujeres que sufren este tipo de violencia. Para ello, además de las instituciones públicas, es necesaria la participación de personas*

2024 - 6 | 24/01/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
T0144708b00b1813b9207e90b50100e3bP



*protokoloekin lagundu dezaten, eta azken batean, berdintasunezko etorkizun baterantz abiatu gaitezen.*

*Arabako Mendialdeko Kuadrillan oso argi dugu indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko ezinbestekoa dela berdintasun-politikei beharrezko giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomikoak ematea, eta ildo horretan, uste dugu ikuspegi feministarekin lan egin behar dugula, egunero eta eremu guztietan. Krisiak ez du aitzakia izan behar arazo larri eta kolektibo honi aurre egiteko beharrezkoak diren aurrekontuen murrizketa edo izoztea justifikatzeko.*

*Eta horregatik*

- *Kontzientziazio-, sentsibilizazio-, prestakuntza- eta erreparazio-lana sustatzen jarraituko dugu, indarkeria matxistak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.*
- *Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa gure egin eta herriko eragile ezberdinekin batera berau lantzeko eta erantzun protokolo propioa sortzeko konpromisoa hartu.*
- *Berdintasun-unitateak egonkortzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du.*
- *Indarkeria digitala prebenitzeko eta erantzuteko estrategiak landuko ditu, indarkeria matxisten egungo egoeraren analisiari erantzuteko.*
- *Neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabekuntza jarduerak abian jarriko ditu, hainbat gai jorratu ahal izateko, besteak beste, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab., 10 urtetik gorako neskei eta nerabeei zuzendutako autodefentsa feministako tailer iraunkorrak ere jasoz."*
- Mutil eta gizonei zuzendutako lanketa berezituak abiatzeko konpromisoa hartzen du, afektibitatea, harreman ereduak, maskulinitate ereduak, rol sexistak gainditzeko estrategiak, eta parekidetasuna lantzeko besteren artean; eta horretarako programa zehatzak aktibatzeko

*expertas en la materia y de movimientos feministas.*

*En la Cuadrilla de Mendialdea tenemos muy claro que para poder hacer frente a la violencia machista es imprescindible dotar a las políticas de igualdad de los recursos humanos, técnicos y económicos necesarios y, en este sentido, creemos que debemos trabajar con una visión feminista, cada día y en todos los ámbitos. La crisis no debe servir de excusa para justificar el recorte o congelación presupuestaria de los recursos.*

*Por todo lo anterior:*

- *Continuar con la labor de concienciación, sensibilización, formación y reparación para avanzar en la erradicación de las violencias machistas.*
- *Estabilizar y reforzar las unidades de igualdad.*
- *Definir estrategias de prevención y respuesta a la violencia digital para dar respuesta al análisis de la situación actual de las violencias machistas.*
- *Garantizar que todos los recursos, servicios y procedimientos relacionados con la violencia machista, tanto administrativos como judiciales, sean públicos, gratuitos y no discriminatorios.*
- *Puesta en marcha de actividades de empoderamiento dirigidas a niñas, jóvenes y mujeres adultas que permitan abordar temas como las relaciones de pareja y las relaciones afectivas sexuales, los amores románticos, las sexualidades libres, etc., incluyendo talleres permanentes de autodefensa feminista dirigidos a niñas y adolescentes mayores de 10 años.*
- *Comprometerse a poner en marcha actividades especializadas dirigidas a chicos y hombres para trabajar la afectividad, los modelos relacionales, los modelos de masculinidad, las estrategias para la superación*

24/01/2025
2024 - 6
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
T0144708b00b1813b9207e90b50010e3bP



konpromisoa ere hartzen du.

*de roles sexistas y la paridad, entre otros, y a activar programas específicos para ello.*

• Indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidearen alde guztiak (tartean, egiaren hedapena, kalte-ordainketa, akonpainamendu soziala edo ez errepikatzeko bermea) lantzeko programa iraunkorrak, eta osasun egoerari egokitutakoak, martxan jarriko ditu / martxan jartzeko dei egiten du, besteren artean arlo ezberdinei zuzendutako protokoloak, memoria historikoa berreskuratzea, omenaldiak, jardunaldiak, tailerrak, ikerketak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak, kasu)... jasoz.

*• Poner en marcha programas permanentes, adaptados al estado de salud y dirigidos a todas las partes, del derecho a la reparación de las mujeres víctimas de violencia machista, incluyendo la difusión de la verdad, la reparación, el acompañamiento social o la garantía de no repetición, incluyendo protocolos dirigidos a diferentes ámbitos, recuperación de la memoria histórica, homenajes, jornadas, talleres, investigaciones, cinefórum, iniciativas de visibilizarían (nombres de calles, etc.), etc.*

• Mugimendu Feministak Arabako Mendialdean antolatuko dituen hurrengo mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu."

*• Llamamos a participar en las futuras movilizaciones que se organizarán en Mendialdea."*

Bertaratutako batzarkideek aho batez onetsi dute Adierazpen Instituzionala

Por unanimidad de los/las junteros/as asistentes queda aprobada la Declaración Institucional

**<u>4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KUADRILLAREKIN IZENPETUTAKO GOFE/AFA HITZARMENA, OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZURAKO</u>**

Presidenteak jakinarazi du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (AFA) proposatutako hitzarmen berriak, berritasun nagusi gisa, iraupen luzeagoa duela, lau urtekoa, eta ez dela beharrezkoa urtero berritzea, horrek segurtasun juridikoa eta ekonomikoa handitzea baitakar. Gainerako edukia aurreko hitzarmenen antzekoa da, eta diruz lagundutako figuren % 80ko finantzaketari eusten zaio.

Gaur egun, zirriborro bat dago, eta Kuadrilla horren adostasuna lortu nahi da. Hala ere, aldaketa gehiagorik aurreikusi ez denez, onestea gomendatzen da.

Aurrekoa ikusita, aho batez, bertaratutako hamar batzarkideen aldeko botoarekin, honako erabaki hau hartu da:

**<u>4.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CONVENIO IFBS/DFA CON LA CUADRILLA PARA EL SERVICIO SOCIAL DE BASE</u>**

El presidente informa que el nuevo convenio propuesto por el IFBS (DFA) trae como principal novedad su mayor duración, de cuatro años, en lugar de ser necesarias renovaciones anuales, con el aumento en seguridad jurídica y económica que ello supone. El resto del contenido es similar a los anteriores convenios, manteniendo una financiación del 80 % de las figuras subvencionadas.

A la fecha actual se dispone de un borrador para el cual se pretende recabar la conformidad de esta Cuadrilla, si bien no previendo más modificaciones, se aconseja su aprobación.
A la vista de lo anterior, por unanimidad, con el voto favorable de los/as diez junteros/as presentes, se adopta el siguiente acuerdo:

24/01/2025
2024 - 6
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
T0144708b00b1813b9207e90b50010e3bP



**LEHENENGOA.-** Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren eta Arabako Mendialdeko Kuadrillaren arteko lankidetza-hitzarmena onartzea, oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko.

**BIGARRENA.-** Erabakia Kuadrillako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari eta Administrazio Sailari jakinaraztea, beharrezko izapideak egin ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea hitzarmen hau sinatzeko, sinadura eta beharrezkoak diren bestelako izapideak barne.

**LAUGARRENA.-** Hitzarmen honen edukia argitara ematea.

**PRIMERO.-** Aprobar el Convenio de colaboración entre el departamento de políticas sociales de la Diputación Foral de Álava y la Cuadrilla de Montaña Alavesa para la prestación de servicios sociales de base.

**SEGUNDO.-** Notificar el acuerdo al Servicio Social de Base de la Cuadrilla y al departamento de administración a fin de que haga las tramitaciones necesarias.

**TERCERO.-** Facultar a la presidencia de la Cuadrilla para la suscripción del presente convenio, incluyendo la firma y otros trámites necesarios.

**CUARTO.-** Dar publicidad al contenido del presente convenio.

**5. GABONETAKO EKINTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Lehendakariak Unai Sáez de Ocariz Samaniego batzarkideari eman dio hitza, eta hark azaldu du helburua dela jarduerak hona ekartzea, eskualdera, kanpora irteerak antolatu beharrean. Hala ere, planteamendua aurrekontu berarekin egitea da. Zehazki, jarduerak hiru urtean behin bi udalerritan banatzea planteatzen da, eskualdeko ardatz bakoitzeko batean, txandaka.

Jarduerak ez daude guztiz itxita, baina sarrera desberdinen proposamenak planteatzen dira, horiek kobratzeko proposamen bat, jarraian datorren proposamenean jasotzen denaren arabera:

**5. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ACTIVIDADES DE NAVIDAD**

El presidente da la palabra al juntero D. Unai Sáez de Ocariz Samaniego, que expone que la pretensión es traer actividades aquí a la comarca, en lugar de organizar salidas fuera. El planteamiento, no obstante, es hacerlo con el mismo presupuesto. Concretamente, se plantea repartir geográficamente las actividades cada tres años en dos municipios, uno en cada eje de la comarca, de forma rotatoria.

Las actividades no están completamente cerradas, pero se plantean las propuestas de distintas entradas, una propuesta de cobro por las mismas, según se recoge en la propuesta a continuación:

2024 - 6
24/01/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
T0144708b00b1813b9207e90b5010e3bP



**PIN NAVIDAD 2024 en MONTAÑA ALAVESA**

| ANIMACIÓN | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **ACTIVIDAD** | **DESCRIPCIÓN** | **FECHA / HORARIO** | **UBICACIÓN** | **COSTE** |
| **PROPUESTA IRRIKAZU ANIMAZIOA** | Parque con atracciones y talleres infantiles para niños y niñas de 2 a 5 años y de 6 a 14 años | **Viernes 27 Tarde: 17-20 h** | Frontón Maeztu | 2.420 € Elementos, sonido, monitores Se puede añadir alguna actividad más para complementarlo |
| | | **Sábado 28 Mañana: 11-14 h** | Polideportivo Lagran | |
| **PROPUESTA ALAIKI** | Parque con atracciones y talleres infantiles para niños y niñas de 4 a 9 años y de 10 a 14 años | **Viernes 27 Tarde: 17-20 h** | Frontón Maeztu | 6.226 € Elementos, monitores No incluye sonorización, mesas y sillas |
| | | **Sábado 28 Mañana: 11-14 h** | Polideportivo Lagran | |
| **TRANSPORTE** | | | | |
| **PROPUESTA AUTOBUSES PÉREZ** | Monitores no incluidos | Ruta 1: Harana-Kanpezu-Maeztu (PIN)<br>Ruta 2: Urizaharra-Bernedo-Lagran (PIN) | | Bus hasta 28 plazas / 275 € / día<br>Bus más de 28 plazas / 385 € / día |

| TABLA DE PRECIOS | | | |
|---|---|---|---|
| ENTRADA MENORES | ENTRADA MENORES + TRANSPORTE | ENTRADA MAYORES ACOMPAÑANTES | TRANSPORTE MAYORES ACOMPAÑANTES |
| **3 €** | **5 €** | - | **3 €** |

* En caso de necesitar transporte este se reservará y abonará previamente en la Cuadrilla junto con la entrada
** La entrada se podrá adquirir en el lugar

Proposamena bertaratutako hamar batzarkideek onetsi dute, aho batez.

La propuesta queda aprobada por unanimidad de los/las diez junteros/as presentes.

**6.-ANTOÑANAKO BILTEGIKO OBRARAKO LEADER-i LUZAPENA ESKATZEKO ONARTZEA HALA BADAGOKIO**

Presidenteak jakinarazi du 2023an finantzaketarik ez zegoenez, aurten AFAtik diru-sarrera gehigarriak lortu direla. Hala ere, lizitazioa hutsik geratu zen, ondorengo prozedura negoziatuarekin gertatu zen bezala. Aurrekoa ikusita, AFAk diruz lagundutako zatiaren obrak esleitu dira, kontratu txikiaren bidez kontrata daitekeen zenbatekoarekin, eta, horrela, gainerako proiektua 2025ean egin ahal izango da, zenbatekoak eguneratuz. Horretarako, berriro eska dakioke luzapena Leader-ari.

Aurrekoa ikusita, Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako hamar batzarkideek aho batez erabaki dute Leader programak emandako dirulaguntza luzatzeko eskatzea.

**6.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE SOLICITUD DE PRORROGA A LEADER PARA LA OBRA DEL ALMACEN DE ANTOÑANA**

El presidente informa de que, tras la falta de financiación en el 2023, este año se habían conseguido ingresos adicionales por parte de la DFA. Sin embargo, la licitación quedo desierta, como también sucedió con el procedimiento negociado posterior. Visto lo anterior, y con el objeto de no perder la subvención concedida por DFA se han adjudicado las obras por el importe de la parte subvencionada por la DFA, importe contratable por contrato menor, de forma que el proyecto restante se pueda hacer el año 2025, actualizando importes. Para ello, es posible pedir nuevamente prorroga a Leader.

A la vista de lo anterior, la junta de Cuadrilla, por unanimidad de los/as diez junteros/as asistentes acuerda solicitar prorroga en la subvención concedida por el programa Leader.

2024 - 6
24/01/2025
ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRAREN AKTA-LIBURUA / LIBRO DE ACTAS DE JUNTA DE CUADRILLA MONTAÑA ALAVESA
BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillamendialdea/validacionDoc/?entidad=CAMPEZO_CU
T0144708b00b1813b9207e90b50100e3bP



**7.- EH BILDU TALDE POLITIKOAK TOKI-ERAKUNDEAK FINANTZATZEKO AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Urtzi Gaintzarain González de Durana batzarkideak hartu du hitza, eta mozio-proposamen hau irakurri du:

***TOKI-ERAKUNDEEN FINANTZAZIO NAHIKOTASUN ETA BIDEZKO BANAKETA BATEN ALDEKO MOZIOA***

*Azken hamarkada hauetan, Toki Erakundeez gaindiko instituzio ezberdinek onartutako legeen bitartez eta urteetan zehar gaur egun arte sortu diren gizarte-premia berrietatik eratorritako zerbitzuak eta eskumenak hartu dituzte beren gain EAEko Toki Erakundeek. Duela zortzi urte onartu zen EAEko Toki Erakundeen Legeak herritarrengandik gertuen dauden instituzioen berezko zerbitzu eta eskumenak zehaztu zituen. Zerbitzu eta eskumen horiek, subsidiaritate-printzipiotik abiatuta, positiboki eragin dute gure bizilagunentzako zerbitzuen kalitatean eta, horrez gain, lege hau tokiko autonomia indartzeko tresna bilakatu dela esan dezakegu.*

*Hala ere, kontuan izan behar da 19/1997 Foru Arauan jasotzen den Arabako Toki Erakundeen finantzazioak eta berau banatzeko irizpideak 27 urte baino gehiago daramatzala ia eguneratu gabe eta, gaur egun, euskal gizarteak dituen erronkei Toki Erakundeetatik erantzun ahal izateko dauden zailtasunak agerikoak direla.*

*Gizartearen digitalizazioak, trantsizio ekosozialak, erronka demografikoak eta zaintza beharrek adibidez, tresna eta finantzazio sistemak eguneratzea eskatzen dute halabeharrez eta, gaur da eguna, 2018. urtean Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak egindako "EAEko erakunde maila desberdinen eskumen propioen eta finantzaketaren azterketa orokorrak" dokumentuan ebatzi zituen ondorio eta gomendioen lanketarik egin ez dela.*

*2018. urtetik aurrera, gure gizartearen garaiko*

**7.- MOCIÓN DEL GRUPO POLÍTICO EH BILDU PARA LA FINANCIACIÓN DE ENTIDADES LOCALES**

Toma la palabra el juntero Urtzi Gaintzarain González de Durana, que da lectura a la propuesta de moción que sigue:

***MOCIÓN PARA LA SUFICIENCIA FINANCIERA Y UN REPARTO JUSTO PARA LAS ENTIDADES LOCALES***

